

# PISTA JOKOA LA JARANA JUEGO DE PISTAS



EUSKAL  
ITSAS  
MUSEOA

MUSEO  
MARÍTIMO  
VASCO



GIPUZKOA  
ETORKIZUNA  
ORAIN



# MARI

---

## ZUBIA, José María (Zumaia, 1809 - Donostia, 1866)

"Mari" bezala ezagutzen dena Zumaian jaio zen. Gaztaroan, Zumaiaiko portura iritsi nahi zuten ontzi handientzat atoian eramateko lanak egin zituen. Handik urte batzuetara Donostian arrantza traineru baten patroiz moduan lan egin zuen.

Arrantzaleen arteko solidaritatea ezaguna da eta Mari horren adibide izan zen, zailtasunetan aurkitzen ziren arrantzale edo itsas gizonen erreskate lanetan parte hartu zuen. 1866ko urtarrilaren 9an, Kontxako badian, ekaitz bortitz baten ondoren itsasora eroritako Getariaiko arrantzale batzuk sorostea joan zen baina urek betirako eraman zuten. "Holandes" goitizena zuen beste patroiz bat bere eskifaiarekin "Mari" sorostera atera zen baina ezin zuen ezer egin.


Jende askok egin ditu itsasoan bizitzak salbatzeko ekintza adoretuak, baina José María Zubia arrantzaleak itsas salbamenduko heroi nagusia sinbolizatzen du gure artean.

---

Conocido como "Mari", natural de la localidad guipuzcoana de Zumaia, trabajó en labores de ataje en su localidad natal para después establecerse como patrón de lancha de pescadores en San Sebastián junto a su tripulación.

Siguiendo la solidaridad existente entre los pescadores Mari participó en más de una ocasión en el rescate y la ayuda de aquellas gentes de mar que se encontraban en apuros. El 9 de enero de 1866 desapareció para siempre en el mar cuando intentaba rescatar a unos pescadores de una chalupa de Getaria que, sorprendidos por una terrible tormenta, trataba de entrar en la Bahía de La Concha. Al rescate de Mari y de su tripulación salió otra trainera que patroneaba otro arrantzale, de apodo "Holandés", aunque no pudieron hacer nada para salvarlo.

Son numerosas las personas que han protagonizado acciones de valor para salvar vidas en la mar, si bien la figura del pescador José María Zubia simboliza entre nosotros al héroe del salvamento marítimo por excelencia.



Urikalduak salbatu naiaz  
eman zenduben biziya,  
ta gaur daukazu goitaltxatuaz  
obiz itsaso aundiya.  
Lo egin zazu baga soñuaz,  
o gizon maitagarriya,  
onraturikan zure gloriyaz  
Donosti ta Kantauriya.

Intentando salvar a los ahogados  
diste la vida,  
y hoy tienes el descanso  
tu sepultura la magna mar  
Duerme con el ruido de la olas  
oh! hombre querido  
honras con tu gloria  
a Donostia y el mar Cantábrico.

# MOILA

---

## MUELLE

Gure portua historian zehar ikusten duguna baino handiagoa izan da. Kontxako badia, Pasaia eta Urumea ibaiko Santa Katalina portua, mendeetan zehar, Donostiak egiten zuen merkataritza eta arrantza biziaren babesleku izango dira.

Kaiko lehen pausoak XV. mendean emango dira, baina hainbat aldaketa jasango ditu. XVIII.mendean, Donostiako Kontsulatuak bere dorretxea eraikitzen duenean, adibidez. XIX.mendean aldaketa nagusietako bat egingo da, arrantzaleen Kofradia sustaturik arrantzaleentzako etxebizitzak eta arkupeak egingo eraikiko ditu, Jarana Auzoari sorrera emanez.

Azken 100 urteotan, aro berrietara egokitzeko hainbat aldaketa izan ditu, hala nola, lonja berriaren eraikuntza hegazkin-ontzia goitizenez ezaguna den espazioa edota kai-muturrak laburtu egin dira.

---

La historia del puerto-muelle de Donostia es muy extensa pero no es solo lo que vemos hoy en día. Nuestro puerto hay que entenderlo como una red que estaba conformada por la Bahía de la Concha, el puerto de Santa Catalina del río Urumea y el puerto de Pasajes.

El aspecto del puerto que hoy conocemos comenzó en el siglo XV, aunque a lo largo del tiempo irá modificándose. En el siglo XVIII se realizarán cambios para adecuarse a los avances y necesidades, como la construcción del edificio del Consulado de San Sebastián. En el siglo XIX su morfología cambiará promovido por la cofradía de Mareantes dónde se construirán las viviendas y soportales que darán el inicio al Barrio de la Jarana.

Finalmente, durante los últimos 100 años sufrirá nuevos cambios para adecuarse a las nuevas necesidades, mirando siempre al futuro. Entre estos cambios estarán la construcción de una lonja -conocida como el “portaaviones”- o acortar varios espigones.



# PASEO DE LOS CURAS

---

## APAIZEN PASEALEKUA

"Apaizen pasealekua" donostiarrek Pasealeku Berria eta Gaztelubideko bidea lotzen dituen tarteari deitzen diote. Toki honek, Donostiako badiaren ikuspegiak beste ikuspuntu batetik gozatu ahal izateko balio du.

Izena bera Donostiarren umoretik eta nolabaiteko ironiatik dator. XIX. mendearen amaierako kronista handiek kontatzen digute, udarako egun sargorietan ez zela zaila apaizak zuhaitz azpietan paseatzen ikustea.

Baina bide horren jatorria ez da hain "poetiko", funtzionala baizik. Felipe II.aren eta Felipe III.aren erregealdietan, gotorlekuak egiteko politika aktiboa garatzen da Espainiako koroaren lurraldeetan zehar. Lan hauek egiteko ardura Tiburzio Spanoqui (Spanocchio) italiarrari eman zitzaion.

Denbora joan ahala, toki honek, pixkanaka, bere garrantzi militarra galtzen joango da, eta hiriko toki ospetsuenetarikoan bilakatuko da. Azkenik, 1922an, berriki inauguratu den Pasealeku Berria eta Apaizen Pasealekua lotuko dituen azken zatia irekiko da, horrela, Urgull mendia itsasoaren aurrealdetik inguratu eta Parte Zaharra lotzea zen herritarren ametsetakoa bat lortuz.

---

El "paseo de las curas" es lo que los donostiarros llaman al tramo que une el Paseo Nuevo y con el camino de Gaztelubide. Es uno de esos lugares de la ciudad para poder disfrutar de las vistas de la bahía donostiarra desde un punto de vista diferente.

El propio nombre viene dado de la ironía de los donostiarros y de sus cronistas de finales del siglo XIX que nos cuentan como no era difícil ver a los curas pasear debajo de los árboles en los días de verano. Su origen no es tan "poético", más bien es funcional. Durante los reinados de Felipe II y Felipe III, se construirán fortificaciones y ciudadelas, uno de los ingenieros al que se le encargó esta labor, fue al italiano Tiburzio Spanocchi (Spanocchio).

Con el tiempo, el paseo perderá su importancia militar y será uno de los lugares más visitados. En 1922 se abrirá el último tramo que conectará el recientemente inaugurado Paseo Nuevo con el Paseo de los Curas, uniendo así un sueño de la ciudadanía que era bordear el monte Urgull por el frente del mar con la Parte Vieja.



# SAN PEDRO KAPERA

---

## CAPILLA DE SAN PEDRO

1896an Jose Loidik eta Maria Josefa Zulaikak La Jarana auzoaren amaieran San Pedro apostularen kapera eraiki zuten. Kapera honek hainbat ezaugarri bereizi ditu:

Batetik, Donostiako San Pedro Arrantzale kofradiarena zen eta bertan kofradiak laguntza ispirituala ematen zien. Honekin bat eraikinean etxebizitzak egin ziren aldi baterako etortzen ziren arrantzaleentzat. Gaur egun etxe horietan jendea bizi da.

Bestetik, 1912an, Gipuzkoako Ozeanografia Elkarteak eskola-aretoan Estatuko Lehen Arrantza Eskola sortuko zuen. Bertan, oinarrizko ezagutzak irakatsiko ziren, hala nola, irakurketa eta idazketa, edo arrantzaren teknologiari edo itsas salbamenduari buruzko ezagutzak.

---

Esta capilla de San Pedro Apóstol fue construida por José Loidi y María Josefa Zulaica en el año 1896 al final del barrio de la Jarana.

La capilla pertenecía a la Cofradía de mareantes de San Pedro de San Sebastián y tenía varias características singulares. Servía para dar asistencia espiritual por parte de la Cofradía y las plantas superiores servían de vivienda, que eran utilizadas por pescadores que venían de forma temporal a la ciudad. Hoy en día estas viviendas siguen siendo utilizadas.

En 1912, la Sociedad de Oceanografía de Guipúzcoa creará en el salón escolar de la capilla la 1ª Escuela de Pesca del Estado. En ella se impartían conocimientos básicos de lectura y escritura, o conocimientos acerca de tecnología de la pesca o de salvamento marítimo.



# AQUARIUMA

---

## AQUARIUM

Donostiako Aquariumaren eraikinaren historia, Kaiarriba izeneko gunean dagoena, Gipuzkoako Ozeanografia Elkarteari lotuta dago. Elkarte hau 1908an sortu zen, eta Ozeanografia garatzea eta indartzea zuen helburu, biologiaren ezagutza hobetzea eta arrantza, arrantzaleen eta nabigatzaileen bizimodua hobetzea zuen helburu.

1912tik 1922ra bitartean arrakasta handia izan zuten hainbat erakusketek bi mugarri handiren sorrera ekarri zien gogora: munduko Lehen Itzuliaren IV. mendeurrenaren oroipena eta Euskal Itsas Museo Historiko baten sorrera.

Baina eraikin honen lehen urratsak berandu iritsi ziren. 1925an jarri zen lehen harria, eta hiru urte geroago Aquariumeko Itsas Jauregia inauguratu zen, Espainiako errege-erreginak eta erakundearen presidentea 25 urtez, Vicente Lafitte, bertan zirela.

Urteek aurrera egin ahala, erakundea eta eraikina aldatzen joango dira, 1998an 360ºko tunela inauguratu zen arte. Bertan akuarioetako asko Kantauriko faunak eta florak okupatu zuten. Proiektua 2008an amaitu zen.

---

La historia del edificio del Aquarium de San Sebastián está unida a la Sociedad Oceanográfica de Guipúzcoa. Fundada en 1908, tenía como objetivos desarrollar la Oceanografía, mejorar el conocimiento de la biología, la pesca y el modo de vida de pescadores y navegantes.

En el período de 1912 a 1922 varias exposiciones con mucho éxito les hicieron pensar en la conmemoración del IV Centenario de la Primera Vuelta al Mundo y la creación de un Museo Histórico Naval Vasco.

Aunque la Sociedad funcionaba, la construcción del edificio tardó en llegar. En 1925 se pondrá la primera piedra y tres años más tarde se inaugurará el Palacio del Mar-Aquarium, con la presencia de los reyes de España y Vicente Lafitte, el presidente de la entidad durante 25 años.

A lo largo de los años tanto la entidad como el edificio irán cambiando, hasta que en 1998 se inaugura el túnel de 360º donde muchos de sus acuarios serán ocupados por la fauna y flora del Cantábrico. Un proyecto que culminará en el 2008.



# LA CASA-TORRE DEL CONSULADO DE SAN SEBASTIÁN

---

## DONOSTIAKO KONTSULATUKO DORRETXEA

XVIII. mendearen erdialdetik aurrera, Donostiako Kotsulatuko eraikinaren berri dugu Kaian (1760 geroztik). 1813ko sutetik eta hiriaren suntsiketatik libratu zen eraikin zibiletako bakanetarikoa izan zen eta seguraski hiriko eraikin zaharrenetarikoa.

Eraikin honen funtzioen artean portuko lanak kontrolatzea, zergak ordaintzea edota kaiko mantenimendu lanak egiteko tresnak gordetzea zen. Gainera, nautika eskola izan zen. Kaiko biztanleek, Espainiako Gerrate Zibilean, ontzietako artileriatik babesteko dorretxea babesleku moduan erabili zuten.

Kondairek diotenez, eraikin honetan biztanle famatuak bizi izan dira. Hauetako bat Luis Karril da, "Torrekua", traineru estropadetan patroia handia hemen bizi izan zela diote.

---

El edificio fue levantado a mediados del siglo XVIII (se cree que hacia 1760) en el puerto por el consulado de San Sebastián. Este singular inmueble, casa-torre, es uno de los pocos edificios civiles que se salvaron de la destrucción de la ciudad en 1813, es el edificio más antiguo del puerto y uno de los más antiguos de la ciudad.

El edificio estuvo destinado al control del movimiento portuario, el cobro de impuestos y el mantenimiento del muelle. Además de esto, fue escuela náutica durante un periodo indeterminado. Durante la Guerra Civil española los habitantes del Muelle utilizaron la casa-torre como refugio para protegerse de la artillería naval.

Según cuenta la leyenda, en su torre vivió un personaje muy querido en la ciudad, Luis Carril "Torrekua", uno de los grandes patrones de las regatas de traineras.



# HOLANDESEN ETXEA

---

## CASA DE LOS HOLANDESES

Koruko Ama Birginaren kaleko 2. zenbakian, "holandasen etxea" Alde Zaharreko eraikin berezietariko bat da. Harrizko oinarridun fatxada adreiluz osatua dago eta eraikinaren oinarria (gainerakoa eusten den eraikinaren behealdea) harrizkoa da.

Eraikinean erabilitako harri mota, hareharria da. Harriaren erabilera, eraikinen oinarriak eraikitzeko material bezala, XV. mendearen amaieran orokortu zen. 1489an, hiriak sute handi bat jasan zuen eta hiriaren zati handi bat suntsituta geratu zen. Hiriak hala eskatuta, Fernando Katolikoa erregeak eraikinen oinarriak harriz egitea aholkatuko zuen.

Urte askoan, eraikina Santa Maria Kalea zenean arrantza-aparailuetarako depositu gisa erabilia zen, eta 1813an setioan eta suntsitzean suntsituko ez diren eraikin gutxietako bat izango da, zutik geratzen den antzinako hiriaren aztarnetako bat bihurtuz.


---

La denominada "casa de los holandeses", situada en la calle virgen del Coro nº2, es uno de los edificios más singulares de la Parte Vieja.

De base de piedra, la fachada está compuesta por ladrillos. El basamento del edificio (la parte inferior del edificio donde se sustenta el resto) es de piedra. El uso de la piedra, de tipo arenisca, como material de construcción de las bases de los edificios se generaliza a finales del siglo XV.

En 1489, la ciudad sufre un gran incendio donde gran parte de las ciudades quedará destruida. A petición de la ciudad, el rey Fernando el Católico, aconsejara la construcción de las bases de los edificios en piedra.

Durante muchos años, en la denominada calle Santa Maria, fue usado como depósitos para las artes de pesca, y será uno de los pocos edificios que no serán destruidos en el asedio y la destrucción de la misma en el año 1813, convirtiéndose en uno de los vestigios de la antigua ciudad que quedan en pie.





# PORTALETAS

---

## PORTALETA

Portaleta, Itsasoko atea edo Portalón, ate bererako hiru izen. XV. mendearen amaieratik aurrera, harresia, barruan zegoen hiria eta portua batzeko balio izan zuen. Portaleta hiriko harresiaren zati zen, baina harresi hau 1863an eraitsia izan zen.

XX. mendeak ateari eta bere inguruari aldaketa handiak ekarriko dizkio: estalkiak, atearen bi alboak, bulegoak edota garbileku zaharrak desagertzen joango dira. Honekin bat, atearen erdigunean kokatzen zen ordulari handia, barometroa eta balaustrada begiratoki batek ordezkatuko ditu.


Ate hau igarotzeko lekua izateaz gain, deboziziozko lekua ere bada. Maiatzaren 22an, Jarana auzoko biztanleek Santa Rita eta Santa Kiteria eguna ospatzen dute, itsasoan bizia galdu duten pertsona guztien omenez.

---

Portaletas, Puerta de mar o Portalón, tres nombres para una misma puerta. Esta puerta sirvió desde finales del siglo XV para conectar la ciudad intramuros con el puerto. Portaletas forma parte de la muralla que rodeaba la ciudad que dejó de ser útil a partir de 1863 cuando estas fueron derribadas.

En el siglo XX tanto la puerta y sus alrededores han sufrido grandes cambios: la cubierta, los edificios aledaños a la puerta, como el antiguo lavadero u oficinas han ido desapareciendo y han ido dejando lugar a nuevos espacios. Además de esto, en su espacio central había un gran reloj, barómetros y una balaustrada que desaparecerán dando paso a un mirador.

Esta puerta no solo es lugar de paso sino que también es un sitio de devoción, todos los 22 de mayo los habitantes del barrio de la Jarana celebran el día de Santa Rita y Santa Quiteria, en honor a todas aquellas personas que han perdido la vida en la mar.



# NAUTIKOA

---

## NÁUTICO

Donostiako Errege Itsas Klubaren eraikina hiriaren eraikin enblematikoa da, Kontxako badian porturatutako itsasontzi baten antza duena. Egurrezko eraikin zahar baten eta hiriko akuarioaren gainean eraiki zen.

Bere kokapen ezin hobea, hondartzaren arrasean, elementu esanguratsuenetako bat izango da eta bertan Donostiara udaran zetozen noblezia eta burgesiak bere festak eta bilkurak egingo dituzte.

Hiru solairu dituen eta hormigoiz egindako hau, 1928-1929an eraiki zen, Jose Manuel Aizpurua eta Joaquin Labayen arkitektoen proiektuaren arabera. Bi arkitekto hauek GATEPAC, espainiar estatuko arkitektura berritzaile baten aldeko taldeko kideak izan ziren.

Bere sorreratik, arte eta arkitektura aldetik oso aintzat hartua izan zen, eta, gaur egun, mundu mailako arrazionalismoaren harribitxizat hartzen da.

---

El edificio del Real Club Náutico de San Sebastián es un edificio emblemático de la ciudad que se asemeja a un barco amarrado al Puerto de la Bahía de La Concha. Se edifica sobre un antiguo edificio de madera y el acuario de la ciudad.

Su ubicación inmejorable, junto a la playa se convertirá en uno de los elementos significativos en donde la nobleza y la burguesía celebrarán un sinfín de acontecimientos sociales.

Fue construido en tres plantas y en hormigón entre 1928 - 1929 y según el proyecto de los arquitectos D. José Manuel Aizpurua y D. Joaquín Labayen. Estos dos arquitectos fueron parte del grupo de arquitectos españoles GATEPAC, grupo de jóvenes arquitectos que innovaron la arquitectura española de 1930.

Desde su origen tuvo la máxima consideración artística y arquitectónica y hoy en día está considerado como una joya del racionalismo a nivel mundial.



# ESKAFANDRA

---

## ESCAFANDRA

Euskal Itsas Museoaren harreran urpekari edo eskafandra baten modeloa dago. Donostiarrentzako oso ezaguna den eskafandra, beste izen batekin ere ezagutzen da: Mirakruz kaleko urpekaria.

Londresko Siebe, Gorman & Co enpresan egina, 1930 inguruan ur azpian arnasa hartzeko sistemetan egindako azken aurrerapenekin. 1936an, Espainiako Gerrate Zibila hasi baino hilabete batzuk lehenago, EMICA ontzi-hornidurek erosi eta haien erakusleihoan jarri zuten. Iritsi eta berehala, kaleko eta Donostiako ikur bilakatu zen, baina baita haurrentzako trauma bat ere. Gurasoek negar zotinka edota protestaka zebiltzan haurrak, eskuetatik hartu, eta urpekariaren aurpegi xelebrea ikustera eramaten zuten.

1983an denda itxi zen eta bertako langileek buzoa hartu eta soto baten izkutatu zuten, 1993an, langile hauek Untzi Museora, gaur egungo Euskal Itsas Museora, ekarri zuten arte.

---

En la entrada del Euskal Itsas Museoa, nos encontramos el modelo de un buzo. Este buzo es conocido por los/las más mayores como el buzo de la calle Miracruz, llamado así por la tienda en la que se encontraba.

La escafandra fue confeccionada en la década de 1930 en la empresa londinense Siebe, Gorman & Co con los últimos adelantos en sistemas para respirar bajo el agua. En 1936, justo unos meses antes de estallar la Guerra Civil en España, fue comprado por la tienda de suministros Navales EMICA y colocado en el escaparate de su tienda de San Sebastián.

Desde el primer momento, el buzo se convirtió en un símbolo para la gente de la calle y quizás de algún pequeño trauma infantil. Su peculiar rostro era usado como medio para acallar los llantos y el mal comportamiento de las/los más pequeñas/os.

1983 la tienda cerró y sus trabajadores escondieron el buzo en un sótano hasta que en 1993 fue donado al Museo Naval, actual Museo Marítimo Vasco.

